**LIBURUAK**

Izenburuak: 'Arrosa eta leuna' eta 'Arturo eta Klementina'.

Egilea: Adela Turin. **Marrazkiak:** Nella Bosnia. **Itzulpena:** Fernando Rey.

Orrialde kopurua: 40na orrialde.

Argitaletxeak: Pamiela eta Kalandraka.

Pello Elzaburu

PAMIELA ARGITALETXEKO ARGITARATZAILEA

«Hausnarketarako bidea ematen duten liburuak dira»

Dortokak eta elefanteak dira bilduma honetako protagonistak. Istorioak, baina, ez dira animaliei buruzko kontakizun soilak, sexuen arteko berdintasunaren aldeko mezu sakona ezkututzen baitute euren barnean. Oinarri-oinarrian, errespetuaren eta askatasunaren aldeko oihua dira. Orain dela 30 urte sortutako liburuak izan arren, ez dute gaurkototasunik galdu.


Zein istorio kontatzen dira liburuetan?

Oraingoz, bi liburu argitaratu ditugu: *Arrosa eta leuna* eta *Arturo eta Klementina*. Erreferentzialak direlako argitaratu ditugu. Paskualina izeneko elefante gazte eta arrosa baten istorioa kontatzen da *Arrosa eta leuna* liburuan. Garai batean, gaztetatik bereizten zituzten elefante arrak eta emeak. Emeak ederrak eta desiragarriak izateko, bakarturik edukitzen zituzten, eta eguerdi-liliak eta peoniak ematen zizkieten jateko. Horrez gain, oinetako arrosak, xingolak eta lepokoak jantzen zizkieten. Oso bizitza monotonoa eta aspergarria zuten elefante emeek. Paskualinak hautsi egin nahi du horrekin, ikusten duelako gune hertsia horretatik kanpo mundua zabalagoa dela eta badela beste bizitza bat. Kide arrak aske ikusten ditu, baso zabalera hara eta hona.

Arturo eta Klementina liburuan, berriz, bikote baten harremana kontatzen da. Bi dortoka dira Arturo eta Klementina. Ezkondu egiten dira. Oso-osoz zoriotsu dira, baina bataren eta bestearen bizitza proiektuak urruntzen hasten dira. Beti izan den bezala babestu nahi du Arturok Klementina. Arturo kanpoan den bitartean, etxean gertatzen da Klementina. Klementinak, baina, beste gauza batzuk egin nahi ditu, mundua ezaigutu nahi du. Arturok, baina, ez du ulertzen bere emaztearen nahia. Emaztea pozik egoteko, gero eta gauza gehiago erosten dizkio Klementinari. Hala, batean, planto egiten du Klementinak, eta bere bidea egiten hasten da.

Ez dira istorio soilak; mezu sakona ezkututzen dute.

Berez ipuin arruntak eta soilak diruditen arren, mezu sakon-sakona ezkututzen dute. Hala, orain dela 30 urte liburuak argitaratu ziren garaian, iraultza bat suposatu zuten. Egileak italiarrak dira, eta italieraz argitaratu ziren lehenik,



baina laster itzuli zituzten frantse-sera eta gaztelaniara, eta izugarriko arrakasta izan zuten. Urte luzez liburu horien atzetik ibili da Manuela Rodríguez, Kalandraka

editorea. Azkenean, lortu ditu argitaratzeko eskubideak, eta bost hizkuntzatarara aterata ahal izan ditugu liburuak: euskaraz, galegoz, katalanez, portugesez eta gaztelaniaz.

Liburu mamitsuak direlako erabaki duzue ateratzea?

Bai, edukiz sakonak dira, eta aspaldian idatzitako liburuak izan arren, ez dute gaurkototasunik galdu. Gaur egun ere, halako liburuak behar-beharrezkoak direla ikusten dugu, eta horregatik erabaki genuen argitaratzea. Zer pentsatua ematen duten liburuak dira, hausnarketarako bidea ematen dutenak. Rodríguezek zioen neskek baino mutilek irakurri behar lituzketela liburu horiek. Izan ere, neskek ongi asimilatua dute liburua igortzen den mezua; mutil askok, aldiz, balio horiek ongi errotu gabeak dituzte oraindik.

Zein gai lantzen dira?

Bi liburuetan emakumezkoen eta gizonezkoen arteko harremanak lantzen dira. Baina, horrez gain, itxurakeriaren eta inposatutako modaren edo estetikaren inguruko gaiak jorrotzen dira *Arrosa eta leuna* liburuarekin. Bigarren liburuan, berriz, kontsumismoaren gaia aipatzen da. Zorionari ezin zaiola preziorik jarri erakusten da; zoriontasuna ezin dela lortu produktuak edo objektuak erosiz, alegia. Klementinak aske izan nahi du, jendea ezaigutu, gauza berriak egin, eta desio hori ezin da erosi edo lortu objektuak erosiz.

Zein da bildumaren helburua?

Helburu jakinak ditu bildumak: gizarartean zor zaion tokia ematea emakumeari eta estereotipo sexistak eta bazterkeria desagerraraztea, jokamoldea aldatuz mundu hobea lortzeko.

Adin mugarik gabe irakur daitezke, ezta?

Bai. Liburuak 5 urtetik gorako haurrentzako direla gomendatzen dugu, baina, berez, edozein adinetarako aproposak dira, haur zein helduentzako egokiak.